

Zerbitzariren bildumakoaren zentzu berekoak dira horiek, atsoitz bezala, baina pluralez erabiltze horrek adibide zalantzagarri bat eskaintzen digu, baxera soilean nekezagoa deritzaguna, baxerakoa urrea beharrez lurra izatea edo baxerak heurak urrezkoak edo lurrezkoak. Zeramika zaleontzat hala baltiz hobe, zeramikagileen aztarna izan deitekeanez, baina zoritxarrez bestera dela dirudi: ontzikoa eta ez ontzia.

* * *

LAPITZAREN ARAUAK?—Nork pentsa zezakean holakorik ikusterik eta irakurtzerik? Ba, *Argia* aldizkariaren 980. zenbakiaren 24. orrialdean honako hau irakurtzera iritsi ginen: «Haurrak ikusten duena lapitzaren arauera», J. L.-ek izenpetutako lan batean.

Baina, testu osoa irakurriz ohartu gara «lapitzaren bidez bere irudimenaren (edo irudimenezko) zentzua» edo holako zerbait esan nahi zuela.

Hortariko hutsak, egia esan, edonork noiznahi egiten ditugu, baina maisukeriz ari direnengandik ez genuen holakorik espero.

* * *

MANUELTXO.—Maiz entzuna dugu ijito jendeak eta Espainiako zenbait tokitan, bereziki hegoaldean, Jainkoari eta batez ere Jesus Haurrari, Manuel izena ematen diotela. Baina garai batean Euskal Herrian bertan ere hala ez ote? Adibidez, Bizkai-